

PROIEKTUA

HIRIA.

Irudia, irudimena eta iruzurra



Edorta Subijana
Arkitektoa

Jasotze data: 2016-01-18
Onartze data: 2016-01-20

Hiriek badute hainbat geruza.

Batzuk fisikoak, beste batzuk birtualak, sinbolikoak bai eta memoriarekin zerikusia daukatenak ere.

Italo Calvinok idatziriko *Le Città invisibili* eleberrian adibidez, Marco Polok bere bidaiak Kublai Khani azaltzen zizkionean, memoriaren geruzan baino eraiki ez daitezkeen irudiez jositako hiriak deskribatzen zizkion. Hiri ikusezin horien nortasunak ziren, azken finean, oroitzapenen lengoia poetikoan azaltzen zitzaizkigun altxorak.

Ezagutu eta ikus ditzakegun hiri gehienek ere badute beren nortasuna, nahiz eta askotan hori ez dugun altxor bat balitz bezala zaintzen. Hirien nortasun horretan, memoria kolektiboak osatutako irudian, gertaera historikoek ez ezik, gertatu ez diren edota sekula gertatuko ez diren gertakizunek ere eragina izan dezakete. Zinean edo literaturan fikziozko istorio batek benetako leku batean sor dezakeen mitoaren antzera, eraiki ez diren arkitektura-proiektuek ere izan dezakete eraginik gure memorian, eta gure memoriak, dudarik gabe, gure inguru fisikoaz dugun pertzepzio subjektiboan. Batez ere memoria hori osatzen duten partikulak irudiak direnean.

Horrela, 2013. urtean zehar garatutako lan honetan, irudiekin jokatuz, hiriaren memorian eta hiriarekiko dugun harremanean eragitea bilatu nuen. Donostia gure hiriaren nortasuna eralda lezaketen proiektu txikiak irudikatuz. Hain zuzen ere, memoriaren planoak oraindik nahikoa esploratu gabe dituen alde ilunetan barrena.

Besteak beste, HIRIA erakusketarekin interbentzio-formatu berri batekin esperimintatzeko aukera ikusi nuen. Arkitektura- eta hirigintza-proiektu handiak hiritarroi aurkezteko erabili ohi diren infografiek egun azaltzen duten errealismo-mailak askotan zail egiten du argazkiaren eta marrazkiaren arteko mugak bereiztea. Horretaz gain, oraindik ere, argazkia errealitate objektibo baten irudikapen fideltzat jotzen du gizarteak. Hori dela-eta, errealitatearen

eta simulazioaren arteko anbiguitasunean jorrazteko lan-eremu artistiko zabala dugula esango nuke.

Kasu honetan, eta proiektuen adierazpen grafikoari dagokionez, abstrakzio-maila minimora jotzea beharrezkoa iruditu zitzaidan, arkitektook gustuko ohi ditugun irudikapen estilizatuak alde batera utzi eta ahalik eta irudirik sinesgarrienak osatzea erabaki nuen, argazki bakoitzean gehitutako elementuak gehiegi nabarmentzea ekiditeko helburuarekin.

Bestalde, testu honen hasieran aipatutako memoria horretara bueltatuz eta argazkilaritzaren eremura gerturatuz, hurrengo ideia datorkit: askotan, epe luzean, gertakizun jakin baten bizipenaren oroitzapena barik, gertakizun horri egindako argazkiaren oroitzapena da gordetzen duguna.

Iruzur urbanoa

Irudi bakunen bitartez sendotasun kontzeptual eta bisual handiko egitasmoak aurkeztuz, hiriaren espazio fisiko jakin batzuen «memoria» eraldatzeko gaitasunarekin jolasean aritzea izan zen erakusketaren helburuetako bat. Street Art interbentzio eredugarriek eremu fisikoan material-sarrerara minimo batekin hiriaren irudia edo esanahia guztiz eraldatzeko gaitasuna badute ere, nire lanak hiria «ukitu gabe» eraldatzea bilatzen zuen. Graffiti baten orde, graffiti horren proiektuaren irudiak ere hiriaren irakurketan eragina zuela frogatzea, hain zuzen ere.

Arkitektura eta artearen erdibideko proiektu txiki hauek lehendabiziko aldiz publikoki aurkeztu nituenean, espero baino askoz jende gehiagok muntaiak benetakotzat hartu zituen, nolabaiteko desorientazio-egoera batean murgilduz. Noiztik ote zeuden haren etxe gaineko baratzeak, Kontxa pasealeku azpiko merkatuak edo Atotxa dorreko txirrista? Une batez Orson Wellesen *Munduen Gerra* irratsaioa etorri zitzaidan burura.









Smart Donostia

Erakusketaren ezaugarri formalak alde batera utzita, lanaren helburu nagusia ordura arteko hirigintzaren ereduen inguruan egindako hausnarketa pertsonala partekatu eta horren inguruko eztabaida sorraraztea izan zen.

Kultur hiriburutza gertu zen eta TABAKALERAren berriztapen-lanak hasiak ziren momentu hartan, eta oraindik ere, ekipamendu eta jaialdi erraldioen ordez beste formula alternatiboak lantzea beharrezko ikusten nuen.

Donostiaren kasuan hiria hiriago bilakatzearen defendatzaile sutsua izanik ere, ez nuen uste azpiegitura garesti eta iraunkorretan tematzea estrategia egokia zenik. Ezta puntako sistema teknologikoak ezartzean oinarritutako Smart City kontzeptuaren ohiko definiziora hurbiltzea ere. Hiri osasuntsuak, nire ustez, aldaketen abiadurari erantzun azkarra emateko gaitasuna izan beharko luke, behar iragankorrei behin-behineko irteerak emateko baliagarriak diren formulak garatuz.

HIRIA proiektuan Smart City-aren ideia bestelako definizio batean oinarritutako ereduak azaldu nahi izan nituen. Smart kalifikazio horrek orduko testuinguruan izan beharko lukeenaren manifestu pertsonal baten modura, eta Donostia hiriko kasu konkretuan ondorengo puntuak landu nituen:

- Smart Citizens edo hiritar adimentsuen sormen-gaitasunean oinarritu beharko luke hiritarren parte-hartze eta hiri-ahalduntze prozesuak sustatzen dituen hiriak (Muralak: Agur, Bukowski, California Games, Lorategi Sekretua).
- Ekipamendu kultural berriak eraiki ordez, erabilerarik gabeko espazioetan jarduerak programatzen dituen hiria (Die Mauer).
- Puntako teknologia garesti eta sofistikatuaren aurrean, teknologia baxuan eta inteligentzia kolektiboan oinarrituriko programak indartu eta sustatzen dituen hiria (Hiri Baratzak).
- Eremu publikoa erabilera iragankor berritzaileen bitartez aktibatzen duen hiria (Kontxa Gaumarket, Modan, Ur gaineko Museoa).
- Esperientzia ludiko eta disfrutagarriari garrantzia ematen dien hirigintzan oinarritutako hiria (Atotxako Txirrista).

⋮